

Azken egunotan herrian ustez izandako eraso sexistak direla eta honakoa adierazi nahi du Udalak:

- **Gertatutakoa argitzeko ahaleginetan, Udala elkarlanean ari da Ertzaintzarekin.** Herritar batek salaketa jarri du eta hori ikertzen ari da Ertzaintza, eta ikerketa horretan laguntzeko, ustezko erasotzailearen inguruan duen informazioarekin txosten bat prestatzen ari dira udal teknikariak.

- Udalak argi utzi nahi du **era guztietako eraso sexisten kontra dagoela eta emakumeen kontrako indarkeria orori aurre egiteko ahalik eta baliabide gehien jartzen dituela.** Emakumeen kontrako indarkeria arazo sozial bat da, eta horri aurre egiteko beharrezko erremintak indartzen ari da: besteak beste, protokolo bat martxan da, eta prebentzio politikak eta autodefentsa feminista lantzen ari da.

- Hala ere, **gisa honetako gertaerak** arraza eta komunitate ezberdinez haratago daudela uste du Udalak, eta horregatik, **herrian arrazismoa eta xenofobia sustatzeko ez baliatzeko eskatu nahi die herritarrei**

. Estatistikek argi erakusten dute erasotzaileen profilak ez duela zerikusirik arraza, adin edo maila sozialekin, eta lotura okerrak egitea arriskutsua izan daiteke elkarbizitzarentzat.